

## 1. ¿Non argitu ditzaket nire zalantzak?

[erretiroak@ehu.eus](mailto:erretiroak@ehu.eus) helbide elektronikoa erabiltzea gomendatzen da.

IRI zerbitzuaren telefonoak eta posta helbideak ere erabil ditzakezu:

<https://www.ehu.eus/es/web/iip/langileak>

## 2. Ze dokumentu eman behar dut, inprimakiaz gain?

Irakasle-ikertzaile lan kontratudunen kasuan, lan-bizitzaren agiria eta, erretiro partzialera igaro nahi izanez gero, hura noiz har daitekeen adierazten duen ziurtagiria edo, halakorik ezean, simulazioa.

Irakasle-ikertzaile funtzionarioen kasuan, aurreko garaietako lan-bizitzaren agiria

<https://portal.seg-social.gob.es/wps/portal/importass/importass/Categorias/Vida+laboral+e+informes>

## 3. Nola egin behar da eskaera?

Eskaera erregistroaren bitartez egin behar da. Prozedurarekin arazorik izanez gero, zure eskaera

[erretiroak@ehu.eus](mailto:erretiroak@ehu.eus) helbidera aurrera dezakezu. Eskaera epez kanpo iristen bada, ez da bermatzen ez

kontuan hartuko denik ez eta deialdian jarritako epean erantzungo denik.

## 4. Ordaindutako baimen berezia, urtarrilaren 31ra edo abuztuaren 31ra lotu behar al da?

Bai, horrela jasotzen du akordioak bere laugarren puntuan.

## 5. Ikasturtearen edo lauhilekoaren amaierarekin ez datorren egun batean hartu nahi dut erretiroa, baina akordioan jasotzen diren neurriez baliatuz. Posible al da?

Bai, finkatzen diren daten eta erretirorako nahi duzun egunaren artean eszedentzia berezia erabil dezakezu (soldatarik gabekoa baina kotizazioarekin).

## 6. Nola uztartzen dira oporrak eta ordaindutako baimen berezia?

Baimen berezia gehienez 6 hilabetekoa da, eta erretiro dataren edo erretiroaren aurreko eszedentziaren aurre-aurreko aldi hartu behar da eta, beraz, ez du etenaldirik onartzen..

Lan egindako aldiari dagozkion oporrak baimen bereziaren aurretik har daitezke, malgutasun handiarekin, betiere irakas betebeharrei kasu eginez.

## 7. Nola egokitzen da aurreko akordioaren edo erabakiaren baldintzetatik datorren murrizketa bat?

Irakaslearentzat egokiena den kontua aplikatuz.

Aurreko baldintzak direla eta, ez da posible orain ordaindutako baimena hartzea, baina bai pixka bat handiagoa den murrizketa batez (2022ko neurrien kasuan) eta, nahi bada, eszedentzia batez.

## 8. Tauletan agertzen diren irakats betebeharrak (eskola-orduak eta tutoretzak), zehatz-mehatz bete behar al dira?

Ez, orientagarriak dira, izan ere:

- Adierazitako eskola-orduak kalkulatzeko ez dira kontuan hartu egon litezkeen bestelako murrizketak, ez zuzenekoak (karguak) ez Jardunen bitartekoak.

- Saitetako irakaslanaren urte anitzeko plangintzaren barruan, beti dago irakaslan irakaslearentzat eta sailarentzat eta ikasleentzat egokiena den moduan banatzeko aukera. Eta eskolak uniformeki banatzen ez badira, logikoa da tutoretzak ere modu ez-homogeneoan banatzea.